Lazkaoko bertsolari txiki-handia

Lazkao Txiki aurreko mendeko bertsolari handienetakoa izan zen. Hura jaio zeneko mendeurrena dela-eta, hobeki ezagutzeko aukera izango dugu ETBko *Hitzetik hortzera* saioaren bidez.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Zein bertsolari ezagutzen dituzun kontatu.**
- **Saioan entzundakoari buruzko galderei erantzun.**
- **Zenbait molde ezagutu euskara jatorrean.**
- **Lazkao Txikiren bertso batzuk osatu.**
- **Hitanoaren formak identifikatu.**
- **Aldizkari baterako artikulua idatzi, norbaitek etorkizuneko belaunaldien memorian iraun dezan.**



Eitb

Ikusi aurretik

BAKARKA

1. Nor da nor?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Bertsozalea al zara? Ezagutzen al dituzu bertsolari hauek? Elkartu irudiak eta izenak. Behar baduzu, bilatu informazioa. Ondoren, osatu zerrenda ezagutzen dituzunekin.



Eitb

a) Joxemiel Iztueta “Lazkao Txiki” 3
b) Maialen Lujanbio
c) Saioa Alkaiza
d) Andoni Egaña
e) Maddi Ane Txoperena
f) Fernando Aire “Xalbador”
g) _____
h) _____
i) _____
j) _____

Zenbat ezagutzen dituzu?
Markatu:

1. Ongi ezagutzen dut
2. Izenez ezagutzen dut
3. Entzuna dut, baina ez dakit ia ezer
4. Ez dut ezagutzen

Erantzunak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

Talde handian, komentatu aurreko ariketa: nor ezagutzen duzuen, nondik, zergatik... Osatu zerrenda guztion artean, eta erantzun galderari.

Ba al duzue, bereziki, bertsolariren bat gogoan? Zergatik?

Partekatu erantzunak talde handian.



Argia

Ikusi bitartean

BAKARKA

2. Zer kontatu digute saioan?

Ikusi ETBko *Hitzetik hortzera* bertsolaritzari buruzko saioaren pasartea; Mirari Martiarena aurkezleak hitz egin du Inaxio Usarralderekin eta Joxepa Madariagarekin. Lazkao Txiki bertsolariaren inguruan aritu dira, hura jaio zeneko mendeurrena dela-eta. Erantzun galderei.

1. Nolakoa zen Lazkao Txiki bertsolari gisa? Aukeratu ezaugarriak entzundakoaren arabera.

Lazkao_Txiki_gogoan

sorgina	perfekzionista	oldarkorra
umoretsua	malenkoniatsua	xamurra
zurruna		tristea
txantxazalea	jendaurrean lotsatia	
apala		ateraldietan trebea
	serioa	baikorra



Wikipedia

2. Inaxio Usarralderen arabera, zertan zen hobea Lazkao Txiki?

3. Zeri kantatzen zion Lazkao Txikik?



Eitb

4. Eta gaiak jartzeko orduan, zer nolako esperientzia dute solaskideek Lazkao Txikirekin?

5. Zergatik gogoratzen ditugu Lazkao Txikiren esanak, Joxepa Madariagaren arabera?

6. Zergatik esaten dute "Lazkaoko bertsolari txiki-handia"?

Alderatu erantzunak ikaskide batekin.
Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

Ikusi ondoren

TALDEAN

3. Lazkao Txiki bezain jator

Elkartu hiruko taldeetan, eta erreparatu bideoan entzundako esaldi jator horiei. Komentatu zer esan nahi duten, eta jarri bina adibide.

1. Aurten betetzen dira 100 urte jaio zela, eta Lazkaon, haren herrian, **ez dute ahazteko.**

2. ...ezustekoa emateko, ba, ez zuelako asko behar. Irteera magiko, mundial, horietako bat zeratzeko... **oso emana zen horretan**.

1. _____

_____

2. _____

_____

Partekatu erantzuna talde handian.
Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

4. Lazkao Txikirekin bertsotan

Elkartu ikaskide batekin. Bideoan aipatzen duten ezaugarri bati erreparatuko diogu orain. Garai batean, modan jarri omen zen tresnak ematea bertsolariei gaiak jartzeko. Badirudi Lazkao Txikik ez zuela hori gustuko, baina haren bertso batzuk oso ospetsu egin ziren. Jarraian, gaia zein bertsoak dituzue. Saiatu osatzen.

Ispilu bat eman zioten Lazkao Txikiri, bakarka aritzeko.
Zer esango ote dio bere buruari?
1989an izan zen, Mutiloako jatetxe batean egindako saioan.



Eitb

1

Oso ispilu eder, polit bat
didate aurrera _____
eman duenak jakingo zuen
mutilzahar zahar honen _____.
Gazte dan arte hau izaten da
gazte guztien _____
zahartutakoan ez da begiratzen
gaztetan o(ra)in bezain _____.

pozgarri
ekarri
sarri
berri

2

Aizak: nik hiri bota behar di(a)t
bertso koxkor bat edo _____
behingoan jarri geran ezkero
biok a(u)rpegiz _____.
Neri begira hortik daduzkak
alperrikako bi _____
hik ez nauk noski ni ikusiko
bainan nik ikusten haut _____.

arpegi
begi
hi
bi



Eitb

3

Neri begira jarrita motel
zerta(ra)ko hago _____
(e)ta pentsatzen di(a)t aspalditxotik
ezagutzen _____.
Mutilza(ha)rraren moko horrekin
ez dek ematen _____
azal zimurtzen ari haiz, motel,
Lazkao Txiki _____.

hautela
bezela
horrela
motela

Lazkao_Txiki_ispiluari

Nahi izanez gero, bideoa ikus dezakezue bertsoak osatzeko.

Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

5. Lazkao Txikirekin hiketan

Jarraitu ikaskidearekin; erreparatu aurreko ariketako bertsoei, eta erantzun galderei.

a) Arrotza egin al zaizue Lazkao Txikik bertsoak botatzeko erabili duen euskara? Zerk harritu zaituzte gehien?

b) Adizki guztiak ezagunak egin al zaizkizue?
Bai ❑
Ez ❑
Zein ez dituzue ezagutu? Idatzi hemen.

c) Sailka ditzakezue adizki hauek *hika*ko ala *zuka*ko formak diren adierazita?

haut du da diat da(d)uzkak didate nauk zuen gera



HIKAKO ADIZKIAK	ZUKA ADIZKIAK (NEUTROAK)

Jarraitu ikaskidearekin; irakurri esaldiok, eta, hitanoaren formak identifikatu ondoren, jarri forma neutroan (zuka).

1. Zergatik hator haserre, neska? ***zatoz***
2. Ez dun egia! .....
3. Zinemaren sarreran geundenan geldituta! .....
4. Beti ibiltzen nauk hire zain. .....
5. Aizan, nahi badun, barkamena eskatuko dinat, baina ez dun arrazoirik. .....
6. Arrazoi osoa dik! .....
7. Hire zain nengoela, palomitak erosi ditiat biontzat. .....
8. Har itzan! Jan eta ixo! .....
9. Harrituta nagon. .....
10. Hik sekula ez hidan erakutsi heure izaera! .....
11. Bakea behar diagu. .....
12. Hau beste film baten aurrerapena dun. .....

Erantzunak 8. orrialdean daude.

HITANOA IDENTIFIKATZEKO

Bi harreman-mota hauexek ditugu gaur egun solaskideari hitz egiteko:

- errespetuzko modua (*zuka*): *zu* pertsona oinarri hartuta, Euskal Herri osoan erabiltzen da (erregistro neutroa).
- modu hurbila (*hika*): *hi* pertsonan oinarrituta erabili ohi izan da Euskal Herri osoan, baina, hizkuntzaren bilakaeran galbidean joan den neurrian, *zu* pertsonaren erabilerak ordezkatu du.

Hiru lekutan ager daiteke *hika*ren marka:

- Hasieran ***h*** dutenak:
  zaitez: *hadi* zintudan: *hindudan* zara: *haiz*
  zoaz: *hoa* zaitut: *haut* zaude: *hago*

- Marka erdian dutenak: horiek **NA/A** marka hartzen dute.
  dizute: *di(na/a)te* zizun: *zi(na/a)n* ditut: *diti(na/a)t*

- Marka bukaeran dutenak: **N/K**.
  zaizu: *zain/zaik* dizu: *din/dik* nauzu: *naun/nauk*
  dakizu: *dakin/dakik* naiz: *naun/nauk* nabil: *nabilen/nabilek*

Hikako mintzamoldea erabiltzeko, entzulea edo mezuaren hartzailea kontuan hartu behar da. **Gizonezkoa** bada, ***-k (-a-)*** da elementu bereizgarria; eta **emakumezkoa** bada, ***-n (-na-)***.

6. Gogoratu beharreko pertsonak

Elkartu hiruko taldeetan, eta mintzatu gaiaren inguruan; horretarako, erantzun galderei.

1. Zer ezaugarri izan beharko lituzke, zure ustez, jendeak urte askoan gogoratuko duen pertsona batek?



2. Zergatik geratzen dira pertsona batzuk kolektiboaren memorian?

4. Gaur Lazkao Txiki ezagutu duzue; zein pertsona gehiago ezagutzen dituzue kolektiboaren memorian gorde beharrekoak? Zergatik?

Partekatu erantzunak talde handian.

Lazkao Txikiri buruzko informazio gehiago nahi baduzu, hemen duzu saio osoa.

Hitzetik_hortzera:_Lazkao_Txiki

BAKARKA

7. Etorkizuneko memorian gorde beharrekoa

Ariketa hau etxean egin dezakezu. *Ikasbil* aldizkariak *Etorkizuneko memoria* izeneko atal bat sortu du, eta eskatu dizu zeure gustuko pertsona edo fenomeno bati buruzko testu bat idazteko. Ez duzu pertsona baten biografia idatzi behar: zure helburua da azaltzea ea zergatik merezi duen pertsona edo fenomeno horrek etorkizuneko belaunaldien memorian irautea. 200 hitz inguru idatzi behar dituzu.

Irakasleak emango dizu feedback.

ERANTZUNAK

1. Nor da nor?

1- c; 2- e; 3- a; 4- f; 5- d; 6-b

2. Zer kontatu digute saioan?

1- sorgina, umoretsua, xamurra, malenkoniatsua, tristea, txantxazalea, ateraldietan trebea, serioa.
2- Hobea zen kontu tristeei zein serioei kantzatzen, alde xamur eta malenkoniatsua zuelako.
3- Edozein gairi buruz kantatzen zuen, egunerokotasunari buruzko kontuei, naturari buruz...
4- Inaxiok dio errespetuz jartzen zizkiola gaiak, figura handitzat zuelako. Joxepak uste du Lazkao Txikiri ez zitzaiola gustatzen objektuak ematea gai moduan, baina bazuela bertsoaldia berak nahi zuen bidera emateko gaitasuna.
5- Onak direlako, eta gaur egun aplika daitezkeelako. Etorkizunerako sena zuen.
6- Bertsotan handia izan arren, tamainan txikia zelako.

3. Lazkao Txiki bezain jator

1- Ez dute ahaztu nahi; ez dute erraz ahaztuko.
2- Oso abila zen horretan, eta askotan egiten zuen.

4. Lazkao Txikirekin bertsotan

Oso ispilu eder, polit bat
didate aurrera **ekarri**
eman duenak jakingo zuen
mutilzahar zahar honen **berri**.
Gazte dan arte hau izaten da
gazte guztien **pozgarri**
zahartutakoan ez da begiratzen
gaztetan o(ra)in bezain **sarri**.

Aizak: nik hiri bota behar di(a)t
bertso koxkor bat edo **bi**
behingoan jarri geran ezkero
biok a(u)rpegiz **aurpegi**.
Neri begira hortik daduzkak
alperrikako bi **begi**
hik ez nauk noski ni ikusiko
bainan nik ikusten haut **hi**.

Neri begira jarrita motel
zerta(ra)ko hago **horrela**
(e)ta pentsatzen di(a)t aspalditxotik
ezagutzen **hautela**.
Mutilza(ha)rraren moko horrekin
ez dek ematen **motela**
azal zimurtzen ari haiz, motel,
Lazkao Txiki **bezela**.

5. Lazkao Txikirekin hiketan

- Hika: diat, da(d)uzkak, nauk, haut.
  Zuka: didate, du, da, zuen, gera (gara).
- 1- hator: zatoz. 2- dun: da (emakumezkoari). 3- geundenan: geunden (emakumezkoari). 4- nauk: naiz (gizonezkoari); hire: zure. 5- aizan: aizu; badun: baduzu; dinat: dizut; dun: duzu (guztiak emakumezkoari). 6- dik: du (gizonezkoari). 7- hire: zure; ditiat: ditut (gizonezkoari). 8- itzan: itzazu (emakumezkoari). 9- nagon: nago (emakumezkoari). 10- hik: zuk; hidan: zenidan (emakumezkoari); heure: zeure. 11- diagu: dugu (gizonezkoari). 12- dun: da (emakumezkoari).

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Ez dute ahazteko. Ez dute ahaztu nahi; ez dute erraz ahaztuko.
Horietako bat zeratzeko. Egiteko-edo. *Zeratu* aditza erabili du nahi zuena ahora etorri ez zaiolako.
Gai-jartzaileak zarete. Bertsolariei esaten dietenak zeri buruz, zer egoeratan eta zer doinutan abestu behar duten.

TRANSKRIPZIOA

Mirari Martiarena: Gaur, Lazkaoko bertsolari txiki-handia gogoratzeko ahalegina egingo dugu. Aurten betetzen dira 100 urte jaio zela, eta Lazkaon, bere herrian, ez dute ahazteko. Urtero Lazkao Txiki gogoratzeko egiten duten eguna aitzakia hartuta, guk ere Joxemiel Iztueta, Lazkao Txiki, izango dugu gogoan gaurko programan.
Mirari Martiarena: Aritu gara Lazkao Txikiri buruz hizketan; baina, bertsolari bezala, nolakoa zen? Beste bertsolari batzuei, Iñaki Muruari, entzuna diot "bertsolari sorgina" zela. Zuek nola gogoratzen duzue?
Inaxio Usarralde: "Sorgin" hori, seguru asko, erabiliko du Iñakik, e, ezustekoa emateko, ba, ez zuelako asko behar. Irteera magiko, mundial, horietako bat zeratzeko... oso emana zen horretan. Orduan, bueno, bertsolari bezala, nik uste dut bi alor aitortzen zaizkiola: umorearen erabilera eta bromako joera, eta abar; baina, gero, horren ondoan, den-denek esaten dute, bueno, ba, serioa, xamurtasuna, bere alde melankoliko (malenkoniatsu) tristea ere bazuela, eta Lazkao Txikik pozak izango zituen, baina penak ere bai, eta biei kantatzen zien Lazkao Txikik. Eta ez dakit bertsolari bezala hobea ez ote zen bigarren horretan, ezta?
Mirari Martiarena: Eta zeri kantatzen zion Lazkao Txikik?
Joxepa Madariaga: Nik uste jarritako gaian sartzen zela, eta, aukera emanez gero, edozer gairi buruz. Egunerokoei heltzen zitzaion (zien) asko, eta eguneroko kontuekin aritzen zen.
Inaxio Usarralde: Irakurri baldin baditugu bere bertsoak-eta, naturarekin bat eginda bizi zen pertsona bat zela, hori argi dago, ez? Orduan, natura ere askotan aipatzen... aipatuta agertzen da bere bertsoetan.
Mirari Martiarena: Joxepa eta Inaxio, zuek gai-jartzaileak zarete, eta tokatu izan zaizue Lazkao Txikiri gaiak jartzea. Nolakoa zen berari gaiak jartze hori?
Inaxio Usarralde: Uf, hasieran, errespetu handikoa gogoratzen dut nik. Hainbeste aldiz ez dizkiot jarri, orduan, puf! Ni, orduan, hasiberria izango nintzen... Figura bati gaia jartzea bezalaxe zen, ez?
Joxepa Madariaga: Ni aritu nintzen garai hartan, behintzat, modan jarri ziren gaiak jartzeko tresnak ematea, argazkiak erakustea, halako... Et, et, et, et. Hari gaiak era klasikoan, hola nahiago zituen, eta, askotan gainera, bere estiloa hala zen: gustatzen ez baldin bazitzaion, ez zuen gai horri buruz kantatuko, egingo zuen modua eskibatu (saihesteko) eta aldamenetik joateko, eta nahi zuen bidetik eramango zuen. Eta hori ere, ahalmen hori edukitzea ez da txarra, ez?. Baina hola bizi izandu (izan) nuen nik.
Mirari Martiarena: Zergatik irauten dute memorian bere bertsoek, pasadizoek, esamoldeek...?
Joxepa Madariaga: Onak direlako, gaur egun ere aplikatu litezkeenak direlako. Ba, euskararen ingurukoa, ezta?: "Laster, euskaraz ari garelakoan, erdaraz arituko gara". "Laster" hori iritsi da, eta eguneroko... egunero bizi dugu denok. Eta, orduan, gauza horiek... konturatu egiten zen, ikusi egiten zuen, ikusmena zeukan aurrera begira, zer... nondik nora zihoan gizarte hau, nondik nora zihoan bertsolaritza. Eta gauza horiek esan egiten zituen, eta esaten zituen hain ondo, ba, gordetzeko modukoak izan direla. Eta gogoratu egiten gara, eta erabili egiten ditugu.